

Noiz dugu errebeitzen Izpiritu Saindua ?

Gure egunean.

Hitza ez baduzu aurkitu, laukiak osa itzazu, erantzuna irakurtzeko.

A crossword puzzle grid with 7 columns and 5 rows. The grid is surrounded by various icons: an open book at the top left, a beach scene on the left, a pencil on the left, a loaf of bread at the bottom left, a house with a heart on the roof on the right, a church on the right, and a wine glass at the bottom right.

2 - 1 - 20 - 1 - 9 - 15 - 1

.



1. urratsa

graziaren bizia urrikaimendua




AUPA ! Jainkoa bizi da !

Aitak bizia ematen du.

Jesusek, Semeak,
salbatzen nau.



Izpiritu Sainduak
saindutzen zaitu.



bizia handitzera doa

... handitzen zaren bezala



Zure bataio egunetik , zure baitan emana zausun
Jainkoaren bizia, handituz doa,
sakarementueri esker.

B sortze berri bat da,
Jainkoarekin.

K sendatze bat da,
bekatuak zikindu
duelarik zure arima.

K azkartzen du zure fedea
Jesusen lekukoa izateko.




E egiazko hazkurria da,
arimarentzat janari bat
zuretzat.

BATAIOA


Bataio egunean, apezak ura isuri zuen zure kopetan, hitz horiek erranez :

«
bataiatzen zaitut,
Aitaren
eta Semearen
eta Izpiritu Sainduaren
izenean. »



Ez duzu deusik senditu, bainan zure izaite osoan,
Jainkoa aritu da zure baitan :
Jainkoak eman dautzu bere Bizia,
dena maitasun, dena amodio,
Jainkoa etorri da zure ariman* bizitzera,
Jainkoak eskaini dauzkitzu fedea, esperantza, karitatea, bihotz-
zabaltasuna eta Izpiritu Sainduaren dohainak,
Jainkoak garbitu zaitu jatorrizko bekatutik
eta bekatu guzietatik,
Jainkoaren haurra* izan zira.

Maite nauenak nere mezua begiratuko du;
nere Aitak maitatuko du, eta biak etorriko
gitzaizkio, eta haren baitan biziko gira.
Joani, 14, 23



Ikusazue zoin maite gaituen Aitak, Jainkoaren seme-alaba
izena eman baitaiku, eta hala gira. 1 Joani, 3, 1

Opari eder hau da : **grazia.**

Aitaren haurra zira

bataioan



Izpiritu sainduak azkartzen zaitu

KONFIRMAZIOAN



Jesus zuri emana zauzu

EUKARISTIAN



... saindu eta zoriontzu izan zaiten betiko :

denak sainduak

«zein miresgarria naizen»

salmoa 178

Gutarik baxotxa pertsona bat da, gorputz batekin eta izpiritu batekin, arima batekin.



entzuteko, ikusteko, ezagutzeko,
hunkitzeko, sentitzeko, ulertzeko,
usaintzeko, dastatzeko... maitazeko...

Jainkoa

..... da.

Zure gorputzarekin, ezin duzu ikusi, ezin duzu hunki edo besoetan hartu...
Izpirituz zira harekin harremanetan sartzen Jainkoarekin.

Jainkoa ez da batere zu bezalakoa, ez eta ere asma dezakezunetik...

Bakarrik, ezin dezakezu Jainkotik hurbildu... alta...
Jainkoak nahi du ezagut dezozun,
Jainkoak nahi du maite dezozun,
zoriontsua izan zaiten bizi osoan...

nola egin?

Jainkoak badaki nola zure izpirituak harreman sar dadin berarekin, badaki nola ezagut dezozun : ezagutu eta maitatu.

Bere maitasun handian,
Jainkoa heldu da bizitzera zure ariman,
hau da bataio egunean egin dautzun oparirik ederrena

Salmo 178

Jauna duzu dena ikusten, dena ezagutzen
Jauna, ikertzen nauzu eta ezagutzen:

badakizu noiz naizen jartzen eta noiz jeikitzen,
ene gogoetak urrundik dituzu zilatzen.

Ibil nadin ala etzan, ikusten nauzu,
ene urrats guziak ezagunak dituzu...

Ene gorputza moldatu duzu,
amaren sabelean eho nauzu.

Gora zu, egin nauzulakotz hain harrigarri,
zuk eginak hain dira miresgarri!...

Gida nezazu betirako bidean.

